



Pasaiaiko edozein entitatek izena eman ahaliko du Euskaraldian. HITZA

Azaroaren 20tik abenduaren 4ra egingo da Euskaraldia. Aurten, hizkuntza ohitura aldaketak pertsonez harago entitateetan ere eman daitezkeela erakutsi nahi dute. Pasaian, 33 entitatek erakutsi diote atxikimendua jada.

Entitateen txanda da

Pa n d e m i a k mota askotarik jarduera eta jaialdiak bertan utziarazi ditu, ez ordea, Euskaraldia.

Euskaldunen hizkuntza ohiturak aldatzea helburu dituen arketak zutik jarraitzen du, baita indartsu ere. Bigarren edizioa buru-belarri antolatzen ari zirela iritsi zen COVID-19a, alarma egoera eta konfinamendua. Lana baina, ez zen eten herrietan; Etxealdetik Euskaraldia dinamikaren bitartez, ohitura aldaketak etxetik hastera deitu dute. Orain, normaltasun berriarekin batera, martxoan etendako bideari eutsi, eta Euskaraldia antolaketa kalera aterako dute berriz ere.

Pasaian, Euskaraldian parte hartuko duten entitateak biltzen aritu dira, garrantzi handikoak izango baitira aurten. Izan ere, Euskaraldiaren bigarren edizio-

ari, bigarren ardatz bat gehituko zaio. Herritarren hizkuntza ohituretan eragitea posible dela erakutsita, aurten, entitateetan ere eragitea dute helburu. Entitateak era askotakoak izan daitezke, enpresa, denda, elkarte ala erakunde publiko, besteak beste. Espazio horiek guztiak pertsonek egunerokotasunaren parte dira, eta horietan euskararen erabiltzeko aukera bermatzeak, ohitura aldaketak egonkortzen lagun dezake. Entitateei, euskara arnasmune diren espazio horiek sustatu eta babesteko eskatuko zaie aurten.

Talde dinamikak

Pasaiaiko Euskararen Aholku Batzordeak barrutietako batzordeekin batera, hilabeteak daromatzen entitateekin harremanetan. Iazko udazkenetik, taldekako ekintzak bultzatzen aritu dira, norbanakoen rolak talde erabakien bidez bultzatu nahi dituzte eta. Urtarrilaren

21ean beste urrats bat eman zuten, Euskaraldian parte hartuko duten 13 entitate pasaitarren aurkezpenean egin zen Blas de Lezo Itsas Arrantza Eskolan. Blas de Lezo berarekin batera, beste entitate hauek agertu zuten haien atxikimendua Eus-

Lau barrutietako 20 entitate gehiagok egingo dute bat Euskaraldiarekin

karaldiarekiko: Xantixa Donibanekeko gazte taldea, Itsas Mendi Kultur Kirol Elkarte, Upera Liburutegiaren Lagunak, BPXport Udak Kirol Zerbitzuak, Santamaria arrandegia, Azti zentro teknologikoa, Trintxerpeko Korikoiburuak gazte taldea, Albalas Itsas Kultur Faktoria, Askalitz San Pedroko gazte taldea, Donimag argazki denda, Antxoko Topagunea eta Antxo Areto Futbol Kirol Elkarte. Entitateez

harago, ekitaldi hark Euskaraldiaren beste apustu garrantzitsu bat ezagutarazi zuen: Ariguneak, Euskaraz Aritzeko Guneak.

Ariguneak

Entitate bakoitzak euskara ulertzeko gai diren pertsonak identifikatu beharko ditu. Pertsona horiei prest badaude, euskaraz lasai aritzeko guneak bermatuko zaizkie, hizkuntza-praktikak euskarara aldatu ala finkatzea helburu. Horiek dira ariguneak. Bi motatakoak izan daitezke, barnekoak eta kanpokoak.

Barne ariguneak entitateen barne funtzionamendu taldeen —udal sail bat, gazte asanblada bat edota kirol talde bat esaterako— barrukoak izango dira. Kanpo ariguneak, bestalde, herritarrekin harremanak sortzen diren guneetan sortzen dira, zeinetan gutxienez ahobizi edo bellarriprest batek egon beharko duen hizkuntza aukera bermatzen.

Pasaiaiko entitateak

ARIGUNEAKIN

Txirrita AEK. Antxo
Albaola Itsas Kultur Faktoria. San Pedro
Antxoko Topagunea. Antxo
Antxotarrak Lasterkari Taldea. Antxo
Askalitz Gazte Talde. San Pedro
Badia Plazan Kultur Elkartea. Antxo
Blas de Lezo Itsas Arrantza Eskola. San Pedro
Donimag Argazkiak. Antxo
Kale Heziztaileak. Pasaia
Laboral Kutxa. Pasaia
Pasaiaiko Udak Euskaraldia. Trintxerpe
Santamaria Arraindegia. Trintxerpe
SM Itsaso enpresa. Donibane
Trintxerpeko Korikoiburuak. Trintxerpe
Upera Liburutegiaren Lagunak. Donibane
Xantixa Kultur Elkartea. Donibane

ARIGUNEAK ZEHAZTEN

La Anunciata ikastetxea. Antxo
Pasaia-Lezo Lizeoa. Karmengo Ama Herri Ikastetxea. Trintxerpe
Kotazero urpekaritza enpresa. San Pedro
Ostarte Sailing enpresa. Pasaia
Pasaiaiko Udala. Rome Taberna. Antxo
Gazilore belardenda. Antxo
Boveda Gazte Taldea. Trintxerpe
Mater Ontzi Museoa. San Pedro
Azti enpresa. Trintxerpe
Coexpe enpresa. Pasaia Musikal.
Illunbe Dantza Taldea. Trintxerpe
Itsas Mendi Elkarte
Gastronomikoa. Donibane
BPXport kirolguneak. Trintxerpe eta Donibane

Atxikimendua erakutsi duten entitate guztien artean, hainbatek ariguneak zehaztu dituzte jada. Lehen txandan bat egindakoei, lau barrutietako 20 entitate berri batu zaizkie. Testuinguru oso ezberdinak ordezkatzen dituzte, baina denek dute helburu berbera, euskararen erabilera indartzea. Oraingoz, 33 dira batu direnak, baina gehiagorako tartea dago. Entitateek izena emateko epea irailaren 27ra arte zabalik izango da, *Euskaraldia.eus* webgunean.

Orri babestua Pasaiko Udala



«Hizkuntza ohiturak aldatzeko modurik onena, ekitea da»

Urtzi Zubiaurre
Kotazero urpekaritza eskola

1// Tira, guk oso argi genuen Euskaraldiari bultzada eman nahi geniola. Hauek dira hartu ditugun konpromisoak: bezeroak hartzean lehen hitza euskaraz izatea eta dokumentazio guztia euskaraz ere publikatzea.
2// Barne mailan, egia esan, ez dugu aldaketa handirik iragarriko. Lankide gehienok dagoeneko euskaraz mintzatzen gara. Dena dela, baditugu euskaldunak ez diren lankideak, Euskaraldian testuinguru egokia izango dute urrats hori egiteko.
3// Enpresetan oraindik ere gaztelaniara jotzeko ohitura dago. Euskaraldia errealitate horri buelta emateko aukera izan daiteke.



«Elkarlanaren bitartez emaitzak lor ditzakegula frogatu da»

Munia Larburu
Anunciata ikastetxea

1// Euskara ikasi eta zabaltea gure ikastetxeko helbururik garrantzitsuenetakoa da. Hori dela eta, hizkuntza indartzearekin zerikusia duten egitasmo guztietan parte hartzea beharrezkoa da gure ustez. Bakoitzak duen mailatik abiatuta, parte hartzea deitzen dugu.
2// Gure ikasleen gurasoen gehiengoak ez du euskaraz hitz egiten etxean. Euskaraldia, euskaraz hitz egiten hasteko aitzakia izan daiteke haienentzat.
3// Elkarlanaren bitartez emaitzak lor ditzakegula frogatu da. Oraingoan ere, denok elkarrekin egiten badugu mesede egingo dio Euskaraldiari, baita Pasaia ere.

Galderak

Euskaraldiaren lehen edizioak hizkuntza ohiturak aldatzea posible dela erakutsi zuen. Bigarren edizioan, aldaketa horiei jarraipena ematea izango da helburu nagusia. Entitateek hartutako espazioetan euskararen erabilera bermatzea, mugari izan daiteke lortutakoa egonkortzeko.

1 Euskaraldiari babesa emateko konpromisoa hartu duzue. Zein da zuen helburua?

2 Zein ekarpen egingo dio Euskaraldiak zuen entitateari?

3 Zergatik da garrantzitsua, gizabanakoez harago, Pasaia entitateek Euskaraldiarekin bat egitea?



«Erreferente izan behar dugu euskararen erabilera sustatzen»

Loreto Osa
Pasaiko Udala

1// Euskaraldia aukera oso ona da Pasaiko Udarentzat, udal barnean euskararen erabilera areagotzeko egiten den lanean sakontzeko.
2// Ariguneez euskaraz gehiago hitz egiten lagunduko digute, bai udal barnean eta baita herri-arteekin ere.
3// Entitateak, publikoak zein pribatuak, orokorrean erreferenteak dira herrietan, eta baita Pasaian ere. Horregatik erreferente izan behar dugu euskararen erabilera sustatzen, eta oraindik badugu zer hobetu. Udalaren kasuan, udal barneko zein herriartekiko harremanak euskaraz izan daitezen lanean jarraitu behar dugu.



«Euskaraldian parte hartuz, gure ekarpena egin nahi diogu hizkuntzari»

Mikel Kasano
Rome taberna

1// Euskaraldian parte hartuz, gure ekarpena egin nahi diogu hizkuntzari. Euskarerikiko gertuagoko jarrera edukiko dugu. Tabernak, kuadrilla askoren topaleku dira. Tabernetan hizkuntza ohiturak aldatzea lortzen badugu, urrats handia izango da, euskararen alde.
2// Gure arteko harremanetan ere eragina izatea espero dugu. Gure lehen hitza beti euskarazkoa bada, Rome taberna espazio euskaldunagoa bilaka daitekeela uste dut.
3// Tabernak Pasaia egunerokotasunaren parte gara. Euskaraz bizi nahi badugu, eguneroko espazioetan ditugun hizkuntza ohiturak aldatu beharko dira.



«Bigarren edizioak ohitura aldaketei jarraipena ematen lagunduko digu»

Lurdes Hermosilla
Gazilore belar denda

1// Euskara gure hizkuntza da. Txikitatik argi izan dut guk babestu behar dugula euskara eta Euskaraldia hori lortzeko beste aukera bat da. Helburua betikoa izango da; atea zeharkatzen duen bezeroari lehen harrera gutxienez, euskaraz egitea.
2// Bigarren edizioak, dendetan gertatutako ohitura aldaketei jarraipena ematen laguntzea espero dugu.
3// Niri iruditzen zait Pasaian beti hitz egin dela euskaraz, hitz gutxi batzuk badira ere. Orain, ordea, atzera egiten ari gara, nik hala uste dut. Hori dela eta, euskarak tartea izan behar du beti tokiko komertzioetan.



«Euskara normalizatzeko prozesuaren parte izan nahi dugu»

Ander Urreta
SM Itsaso

1// Euskara normalizatzeko prozesuaren parte izan nahi dugu. Askotan bezeroekin dugun harremana gaztelaniazkoa izaten da, nahiz eta euskalduna izan.
2// Zoritzarrez, gure sektorean batzuetan zaila dirudi euskaraz hitz egitea, hitz tekniko asko daukelako. Niri pertsonalki, kosta egiten zait. Baina joera bat da besterik ez. Bezeroekin zein gure artean ohitura hori aldatzen saiatuko gara.
3// Hizkuntza bat lehenesteko ardura norberarena da, baina komunitate baten parte diren heinean, enpresek eta bestelako entitateek horrelako herri egitasmoak bultzatu behar dituzte.



«Herriartarrei begira, garrantzitsua da entitateek urrats hau ematea»

Amaia Zurutuza
Boveda Gazte Elkarteak

1// Lehen edizioan gizabanako gisa parte hartu genuen bezala, orain elkarte gisa parte hartzea egoki iruditzen zaigu. Trintxerpen, gazteen hizkuntza ohiturak gaztelaniazkoak izaten dira. Bovedan aisialdia euskaraz bizitzeko espazio bat bermatuko diegu.
2// Alde batetik barne hausnarketa egiteko balioko digu. Gure erronka nagusia, bestalde, gurasoak dira; Euskaraldiak agian aukera emango digu haiekin ere lanketa hori egiteko.
3// Herriartarrei begira, garrantzitsua da entitateek urrats hau ematea, eragin soziala handiago delako eta horri esker jende gehiagok parte hartzea.



«Itsasoa bezala, gure ondare den euskara ere babestu behar dugu»

Eneko Sarasua
Mater Ontzi Museoa

1// Mater ontziko tripulazio osoa euskalduna izanik, gure ama hizkuntza sustatzeko iniziatibetan parte hartzea funtsezkoa iruditzen zaigu. Itsasoa bezala, gure ondare den euskara ere babestu behar dugu eta erabilera bermatzen saiatuko gara.
2// Euskaldunak izan arren, airtortzen dugu batzuetan erdara jotzen dugula. Euskaraldiak kontzientzia hartzen lagunduko digu, joera hori aldatzeko, barne dinamikan euskara indartzuz.
3// Entitateak erreferentziak izan ohi dira. Haiek parte hartzen badute, dinamika indarra hartzen du, inguruko parte hartzea ere sustatuz.



«Euskarak pisu eta eremu zabalagoa hartuko du gure lanean»

Josu Narbaiza
Kale Hezitzaileak

1// Haur eta gazteekin dugun harremana eta lotura kontutan aintzat hartuta, ezinbestekoa iruditzen zaigulako euskarerikiko jarrera positiboa agertzea ez ezik, euskarari duen balioa ematea ere. Egun, bi barne arigune eta kanpo arigune bat prest ditugu.
2// Euskarak pisu eta eremu zabalagoa hartuko du gure lanean, bai profesionalen arteko elkarlanean, baita adingabeekin dugun erlazioetan ere.
3// Pasaian historikoki entitate eta elkarteek izan duten eta daukaten garrantzia ikusita, ezinbestekoak dira egunerokotasunean euskara sustatzeko.